

# Situación País Vasco – Zertan den Euskadi

2021



# Euskadiko ekonomiaren esperotako bilakaera

2021eko ekaina

**Euskal Autonomia Erkidegoko BPGa 2020an % 10,5 murriztu (Espainian % 10,8), eta 2021 eta 2022an % 5,5 eta % 7,5 handitu liteke, hurrenez hurren (% 5,5 eta % 7,0 estatuari dagokionean). Hala gertatzen bada, susperraldiari esker 2020tik 2022ra 39.000 lanpostu inguru sortuko dira, eta langabezia-tasa % 8,5era jaitsiko da 2022an.**

**2020ko jardueraren beherakada pandemiaren inguruko ziurgabetasuna areagotzearen eta urtearen lehen erdian mugikortasun- eta irekiera-murrizketen ondorioz gertatu zen, neurri batean bultzada fiskal esanguratsu batek leunduta.** BBVA Researchen kalkuluen arabera, kutsatzeak saihesteko beharrezkoak diren urruntze sozialerako neurriek eskualdeko BPGren beherakada nabarmena eragin zuten 2020ko lehen hiruhilekoan (-% 6,5 h/h), eta bigarrenekoan, berriz, aurrekaririk gabekoa izan zen (-% 16,7 h/h). Ondoren, murrizketak lasaitzeak eta bultzada fiskalak errebotea handia izatea ahalbidetu zuten hirugarren hiruhilekorako (+% 17,9 h/h) baina 2020 urteko azkenekoan, Espainian nahiz EDBn osasun-egoerak okerrera egitean, berriro ere atzeraldia eragin zuen eskualdean (-% 0,9 h/h).

**Pandemiaren eragina nabarmena izan da Euskadin, baina Espainiako beste eskualde batzuetan baino apur bat txikiagoa. Arrazoen artean daude ezarritako murrizketek bereziki eragindako sektoreekiko mendekotasun txikiagoa eta eskualdeko turismoa merkatu nazionalerantz bideratuagoa izatea.** Kontsumo pribatuaren uzkuertzeak, bereziki kontsumo-sozialeko sektoreetan, ondasun eta zerbitzuen esportazioenaz gain, BPGren beherakadaren zati handiena azaltzen du, batez bestekoa baino txikixeagoa izandako bultzada fiskal batek arindua. EAren kasuan, BBVAren bezeroen kreditu- eta zordunketa-txartelez egindako edo BBVAren Saltoki Puntuko Terminaletan (SPT) egindako gastu presentziala % 7,8 murriztu zen 2020an (-% 9,1 Espainia osoan); izan ere, konfinamenduaren hilabeterik gogorrenetan, txartelaren gastuaren beherakada % 48koa izan zen Euskadin (Espainian, berriz, % 55). Sektore kaltetuenetan beherakada handiagoa izan zen: bidaiaria-agentziak (-% 88), ostalua (-% 58), garraioa (-% 31), jatetxeak (-% 27) eta moda (-% 26); aldiz, hazkunde handiak izan ziren elikaduran (% 61) eta osasunean (% 13). Gainera, atzeritarren gastuaren pisu txikiagoak azaltzen du (Euskal Autonomia Erkidegoan guztizko gastuaren % 4 ere ez zen, eta Espainian, berriz, % 9) azken eragina txikiagoa eskualdeko eskarian.

**Euskal ondasunen kanpo-eskariak ere okerrera egin zuten, munduko jardueraren narriadurak eraginda, eta eraikuntzak, berriz, ziurgabetasuna handitzearen ondorioak pairatu ditu.** Alde batetik, ondasunen esportazioek % 18,1eko beherakada izan zuten iaz, Espainiakoa baino 7,9 puntu handiagoa eta inportazioena baino zertxobait txikiagoa (-% 22,1). Beherakada horrek esportatutako ondasun mota guztiei eragin zien, energetikoak (-% 52,4 u/u), automobilgintzakoak (-% 19,7) eta ekipo-ondasunak (-% 17,1). Bestalde, etxebizitza berrietarako bisatuak ez bezala, etxebizitzaren salerosketak COVID-aurreko joeraren ia % 10 beherago jarraitzen du, nahiz eta iazko prezio jaitsieraren ondoren, aurtengo lehen hiruhilekoan prezioek berriz gora egin duten. 2020an Eusko Jaurlaritzak BPGren % 2a gaindituz hartutako neurrien artean, hauek nabarmentzen dira: martxoan onartutako 841 milioi euroak, osasungintzarako eta enpresa nahiz autonomoei laguntzeko; eta enpleguaren erreskatatutako ekaineko plana, langabeen enplegarritasuna hobetu eta tokiko enplegu-planerako (BPGren % 1,1 eta % 0,2, hurrenez hurren).

**Aurreko guztiak eragin ezberdindua izan zuen udalerrri eta eskualdeka.** Zehazki, Arabako Lautadan (Gasteiz barne) eta automobilgintzarekin nahiz ekipo-ondasunekin lotutako industria-jarduera duten eskualde batzuetako udalerriek kalte handiagoa jasan zuten, hala nola Debagoiena eta Debabarrenak, bai eta Bizkaian Gernika-Bermeokoak ere, azken horien afiliazioa ehuneko 3 puntu baino zertxobait gehiago murriztu baitzen iazko erdialdera, 4H19ko itxiera-mailarekin alderatuta. Aitzitik, Bilbo Handiaren afiliazioan izandako inpaktua 2 puntutik beherakoa izan zen. Orduetik, nahiko errekupeazio orokorra hasi zen, aitzitik pandemia aurreko afiliazio maila berreskuratzerara iritsi barik.

**2021 hasera hainbat ziurgabetasun-faktorek markatu zuten, batez ere pandemiaren bilakaerari eta txertaketa-prozesuari lotutakoak.** Filomena ekaitzaren eragina penintsularen erdialdean kontzentratu bazen ere, kutsatzen bilakaerak okerrera egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Espainian baino bilakaera okerragoa izan zuen otsailaren hasieratik. Horrela, hartutako neurri murriztaileek familien gastua gutxitzea ekarri zuten, batez ere kontsumo sozialeko sektoreetan, eta baita bisitari kopurua ere. Ondorioz, urtarrila eta maiatza bitartean, eskualdean txartelez egindako gastua 2019ko hilabete horiexetan izandakoa baino ia % 10 txikiagoa izan zen batez beste, eta, Bizkaian, beherakada hori % 13tik gorakoa izan zen. Txartelarekin egindako gastua berrindartu zen maiatza zehar, alarma-egoera amaitzean, baina Espainian baino erritmo txikiagoan. Bultzada fiskalari eusteak, bai Aldi Baterako Erregulazio Espedienteen (ABEE) bidez errentari eusten laguntzeko neurriekin, bai ICOren finantzaketa eta abalen bidez, enpresen lan-kostua arintzea eta kreditu-fluxuari eustea ahalbidetu zuten. Brexit-ak eta Europar izandako kutsatzeek urte haseran euskal ondasunen eskaria murriztu zuten arren, hiruhilekoan zehar hobera egin zuten erdimanufaktorek eta automobilgintzak, EDBren eta Erresuma Batuen eskariari esker, bai eta Txinaren eta AEBen eskariari esker ere; gainera, ekipo-ondasunek pisu handiagoa dute euskal esportazioetan, eta haien BPGrekiko garrantzi handiagoa dute Europa eta AEBetako merkatuetarako salmentek; hortaz, EAEk gainerako autonomia-erkidegoek baino onura handiagoa izan lezake AEBen bultzada fiskalagatik. Nolanahi ere, petrolioaren prezioa ere gorantz berrikusi da, eta horrek eragin negatiboa izan dezake urteko hazkundean, eskualdekoan zein estatukoan, aurreikuspen epean.

**Hasera ahula** izan arren, ekonomia pixkanaka hazkundera itzultzea espero da. Hala, 2021ean, EAEko BPGa % 5,5 handitu daiteke aurreko urtearekin alderatuta, eta horrek enplegua % 1,3 handitzea ahalbidetuko luke. Txertaketaren aurrerapenak, Europar jarduera eta gastua berrindartzeak eta eskari-politika berriek (fiskala eta monetarioa) jarduera bultzatuko dute. Hala erakusten du BBVAren bezeroen eta bezero ez direnen txartel bidezko gastu presentzialaren berrindartzeak, maiatzaren bigarren hamabostaldian, alarma-egoera amaitu ondoren, 2019ko data bereko mailara itzuli baitzen. Ekipo-ondasunen inportazioak ere behetik gora egin zuen lehen hiruhilekoan, urte arteko % 8ko igoera izateraino. Neurri publikoen artean, aipatzekoak dira ABEEak irailera arte luzatzea, gaur egun eskualdeko afiliatuen % 3ri ematen baitiote estaldura, eta Next Generation EUko Europako funtsak, 1.000 milioi eurotik gorakoak izan daitezkeenak aurten bertan hasita, eskualdeko BPGren 1,3 p.p. inguru, ekonomia bultzatzen hasiko baitira, uahiz 2022ra arte ez diren euren ondorioak erabat finkatuko. Horrez gain, euskal turismoak atzeritarrekiko mendekotasun txikiagoa izateak mesede egingo lioke EAERI. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak tarte-fiskal handiagoa du neurri gehigarriak ezartzeko; izan ere, zorpetze-maila batez bestekoa baino txikiagoa da, eta kontu autonomikoen balantzea eskualdeko BPGren % 1,1 adinako defizitarekin itxi zuen 2020, aurreko urteko % 1,6ko superabitaren aldean. Otsailean onartutako aurrekontuak eta lehen hiruhilekoko egikaritzeak erakusten dutenez, politika fiskal hedakorra mantentzen da, kontsumo publiko handiagorekin eta inbertsioaren apaltze batekin.

**2022an jarduera eskualdean % 7,5 handitzea espero da, enpleguaren hazkundera % 2,9 ingurukoa izango litzatekeelarrik. Horrek langabezia-tasa % 8,5era jaitsiko luke, 2019ko mailaren 0,7 puny azpitik,** eta estaturako batez beste aurreikusitakotik 5 puntu pasa behera. Dinamismo hori kontsumoa, inbertsioa eta, bereziki, turismoa berreskuratzean oinarrituko da, eta honako hauen isla izango dira: i) txertaketan izandako aurrerapenak, turismoaren eta aire-trafikoaren normaltasunerako trantsizioa ahalbidetuko dutenak; ii) Europako jarduera hobetzea; iii) eskariaren bultzaden jarraitutasuna, NGEU funtsena bereziki; iv) likidezia handitzen jarraituko duen EBZaren politika (TLTRO III), interes tasak baxu mantenduko dituen eta euroaren preziazioa moteldu; eta v) erabiltzeke dagoen produkzio ahalmen handia, gastuaren jaitsiera handieran ondokit.

**Agertoki hau betez gero, Euskal Autonomia Erkidegoa izango litzateke 2019ko BPGarekiko alderaketa onena duen eskualdeetako bat, iazko beherakada batez bestekoa baino apur bat txikiagoa, aurtengo hazkundera antzekoa eta datorren urtekoa handiagoa izatearen ondorioz.** Hala, 2022ko BPGa 2019koa baino % 1,4 handiagoa izan liteke, Espainiako BPGerako esperotakoaren zortzi hamarren gainetik. .

**Agetoki ekonomiko honen gaineko arriskuak garrantzitsuak dira eta ziurgabetasun handiko hainbat eremutan zentratuak**, 2021eko lehen hiruhilekoko EAEko Jarduera Ekonomikoaren gaineko BBVA Inkestaren emaitzek erakusten duten legez: hurrengo hiruhilekorako aurreikuspenak positiboak badira ere, inkestatuek momentuko hiruhilekoari buruz duten ikuspegia negatiboa da oraindik, hamargarren hiruhilekoz jarraian. Ziurgabetasun iturri bikoitza dago. **Alde batetik, pandemiaren beraren bilakaera**, susperraldirako oztopo nagusi gisa. Hala, txertaketa-prozesuan aurrerapenak ikusten badira ere eta gaixotasunaren intzidentzia murrizten badoa ere, txertaketa-jarraibide osoa duten biztanleen ehunekoa oraindik txikia da. Nolanahi ere, alarma-egoera bertan behera behera gelditu zenetik txartelez egindako gastuaren hobekuntzak kontsumoa eta turismoa uste baino gehiago suspertzea adieraz lezake, eta horrek aurreikuspenak gorantz bultzatuko lituzke. **Txertaketak antzeko erritmoan egiten du aurrera Euskadin eta Espainian. Ezinbestekoa da txertoak eta inokulazioa modu azkar, eraginkor eta masiboan iristea Europa osora**, eta mugikortasunaren, bileren eta irekieren murrizketak segurtasunez gutxienekora murriztea erraztuko duten administrazio-neurriak antolatzea. Horri esker, turismoa berrirrekiko da eta gaur egun kontsumo- eta inbertsio-erabakiak eta lan-merkatuaren egoera baldintzatzen dituen ziurgabetasuna murriztuko da, enpresa-kaudimenaren gaineko arriskuak areagotzen dabilena.

Bestalde, **beharrezko erreformak ez egiteko arriskua dago**, NGEU funtsak ahalik eta gehien aprobetxatzea erraztuko duen susperraldi indartsu baterako baldintzak sortzearekin lotuta. Funts horien gaineko eragina handiagoa izango da aurtengo bigarren erditik aurrera, baina oraindik ez dago argi noiz iritsiko diren eta lurraldeka izango duten eragina zein izango den; eta horrek eskualde bakoitzeko hazkunde-aurreikuspena baldintzatuko luke. Maila ezbedinetako gobernuen (tokikoa eta eskualdekoa) eta sektore pribatuaren arteko lankidetzak funtsezkoa izango da proiektuak behar bezala hautatu eta gauzatzeko.

## LEGE-OHARRA

Dokumentu hau ez da “inbertsio-gomendio” bat, merkatu-gehiegikeriari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 596/2014 (EB) Erregelamenduaren (“MAR”) 3.1 (34) eta (35) artikuluetan zehazten denaren arabera. Zehazki, dokumentu hau ez da “inbertsio-txosten” bat, ezta “publizitate-komunikazio” bat ere, Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 36. artikulua ondo onarturako. Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua osatzen du, inbertsio-zerbitzuetako enpresen antolamendu-betekizunei eta funtzionamendu-baldintzei dagokienez (“MiFID II”).

Irakurleek jakinaren gainean egon behar dute ezin dutela hartu dokumentu hau euren inbertsio-erabakietarako oinarri gisa, eta inbertsio-produktuak eskaini ahal dizkieten pertsonak edo erakundeak legez behartuta egongo direla, erabaki hori hartzerakoan, behar duten informazio guztia ematera.

Dokumentu hau BBVA Research Departamentuak egin du eta dibulgazio-izaera du. Datari buruzko datuak eta iritziak jasotzen ditu, guk egindakoak, zein guretzat iturri fidagarritzat ditugun horietan oinarritutakoak, BBVAk bere kabuz egiaztatu ez baditu ere. BBVAk, beraz, ez du berme propiorik edo inpliziturik eskaintzen, dokumentuaren zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari dagokionez.

Dokumentu honetako edukiak aurretiko abisurik gabe alda daiteke, adibidez, testuinguru ekonomikoa eta merkatuaren gorabeherak aldatzen diren heinean. BBVAk ez du bere gain hartzen edukia eguneratzeko edota aldatetako jakinarazteko konpromisoa.

BBVAk ez du bere gain hartuko erantzukizunik dokumentu honen erabileraren ondorioz egon daitezkeen edonolako galeren aurrean, zuzenekoak zein zeharkakoak.

Ez dokumentua bera, ezta bere edukia ere, ez dira finantza-aktiboetan edo -tresnetan inolako interesik eskuratzeko, desinbertitzeko edo lortzeko eskaintzarik, gonbidapenik edo eskaerarik, eta ezin dira inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri izan.

Dokumentu honetako edukia jabetza intelektualaren legeak babesten du. Zeharo debekaturik dago erreproduzitzea, eraldatzea, banatzea, komunikazio publikoa egitea, eskura jartzea, eraztea, berrerabiltzea, birbidaltzea edo edozein eratako erabilera egitea, edozein bide edo prozedura erabilita, salbu eta legez baimenduta badago edo BBVAk propio baimenik eman badu.

## Txosten hau egileak egin du:

### Ekonomialari nagusia

Miguel Cardoso

miguel.cardoso@bbva.com

Joseba Barandiaran  
joseba.barandia@bbva.com  
+34 94 487 67 39

Giancarlo Carta  
giancarlo.carta@bbva.com  
+34 673 69 41 73

Juan Ramón García  
juanramon.gj@bbva.com  
+34 91 374 33 39

Joana Godinho  
joana.godinho@bbva.com  
+34 648 947 682

Félix Lores  
felix.lores@bbva.com  
+34 91 374 01 82

Pilar Mas  
mariapilar.mas@bbva.com  
+34 91 374 83 94

Virginia Pou  
virginia.pou@bbva.com  
+34 91 537 77 23

Pep Ruiz  
ruiz.aguirre@bbva.com  
+34 91 537 55 67

Angie Suárez  
angie.suarez@bbva.com  
+34 91 374 86 03

Camilo Andrés Ulloa  
camiloandres.ulloa@bbva.com  
+34 91 537 84 73

Rubén Veiga  
ruben.veiga@bbva.com  
+34 638 59 35 17

### JOAN BEHAR DUT:

BBVA Research: Kalea Azul, 4. Eraikina La Vela – 4ª eta 5ª landare. 28050 Madrid (Espainia).

Tel.: +34 91 374 60 00 y +34 91 537 70 00 / Fax: +34 91 374 30 25

bbvaresearch@bbva.com www.bbvaresearch.com

